

Imanol Ortíz de Zárate Arrinda
Eibar, Gipuzkoa
(1921-2010)

Aurkibidea

Biografia



Aita eta ama Abadiñoakoak ziren baina aitak Eibarren egiten zuen lan. Imanolek 7 urte zituenean familia osoa Eibarrera etorri zen bizi izatera, Errebal kalera. Gaztetan, boxeoan egiten zuen eta Eibartik kanpo hainbat plazatan erakutsi zuen bere gaitasuna. Gerra sasoian, gudariekin batera borrokatu zuen fronte desberdinetan. Pelotazale amorratua.

Zintak

AB-170

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 1999-12-14
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

AB-625

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sangroniz, Mikel
- **Data:** 2000-02-08
- **Iraupena:** -
- **Euskarria:** Audio Analog

Pasarteak

1. Abadiñotik Eibarrera bizi izatera

- **Erref:** AB-170/005
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:05:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita eta ama Abadiñokoak ziren baina aitak Eibarren egiten zuen lan. Imanolek 7 urte bete zituenean, Eibarrera etorri ziren bizi izatera, 1928an.

2. Abadiñotik Eibarrera bizi izatera

- **Erref:** AB-170/006
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:05:25. **Bukatu:** 00:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

7 urterekin Abadiñoko baserri batetik Eibarrera etorri, eta hiriburura zetorrela iruditu zitzaion. Eibartik zer gustatu zitzaion gehien azaltzen du Imanolek.

3. Inguruko herritarrentzat Eibar nolakoa zen

- **Erref:** AB-170/007
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:06:09. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Inguruko herritarrentzat Eibar nolakoa zen; iritziak (Elgoibar, Bergara, Durango aldean).

4. Gudarien Batailoia; frentea Elgetan; Eibarko bonbardaketa

- **Erref:** AB-170/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Imanol Santanderren hartu zuten prisionero. Gero Batallón de Trabajadoresen ibili zen. 15 urte zituen baina Gudarien Batailoian parte hartu zuen (Ibaizabal). Elgetako frentea. Apirilaren 25ean Eibar babestera jaitsi ziren, baina hartuta zuten. Trabakua, Bolibarrerutz ihesi. Bonba bat, Casa del Pueblo ondoan jausi zen, Txomin tabernaren ondoan.

Transkripzioa

- Zu baiña oso gaztia ziñan orduan?
- Bai ba, gaztia bai baiña ni be urtenda hor ibili nintzan frentian Asturiasen ta Santanderren harrapau nabem prisionero. Luego en Trabajadores y anduve por ahí yo también con el fusil y ¿qué te crees, pues? Joven si, quince años, pero ahí dieciséis luego y cuado terminó diecisiete o...
- Amuategixan egon ziñan zu?
- Ez, ni partido nazionalistakuan ibili nitzan. Batallón de gudarís, allí había... Estos de Amuategi eran socialistas y eran todos...y yo nombre de todos los batallones sé de cabeza y de todo...
- Baiña Eibarren egon ziñan zu akuartelauta?
- Ez, Eibarren ez. Eibar bueno, Elgetako frentian bai, hor bai. Baiña Eibarren ez. Bueno, Eibarrera bajatu gero azken orduan, el día 25 de abril bajatu Elgetako frentetik eta eskoletan, sartu geure utensiliuak eta epe! Que hay que defender Eibar... Eee! ¡Qué va! Hartuta euken, sartuta e(g)uazen zeretik... Durangon ya Oizera ta bueno...Salimos de aquí a Ermua, y Trabakua, a Bolívar, y de Gernika el día del bombardeo de Gernika y así pasamos, pero todo...E(g)on giñan hemen azken ordu(a)n. Ta bonbia hor jausitxa be bai Untzagan, zerian, Casa del Pueblo onduan ta Txomiñeneko kontra hortxe jausi zan bonba bat eta hor hil zi(r)en ehun ta piku persona edo...una tonelada y media o, una bomba...
- Zein zan izena? Zure batalloian izena?
- Batallón Ibaizabal.
- Zein zan, komandantia edo zein zan?
- Komandantia Bilboko bat. Hil zan en esto, en Zebi Gain. Han Otxandixotik gora Urkiolatik da(g)o Alto de Zubi Gain, Zebi Gain hay una cruz allí puesto. Allí sartu ta erten ta atzera baioneta...

5. Batailoia; Peña Lemonako sarraskia

- **Erref:** AB-170/011
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak

Laburpena:

Batailoietan hildako asko. Peña Lemonako sarraskia; euskaldunak euskaldunen aurka.

Transkripzioa

- Peña Lemonan, Peña Lemonan Amuategikuek asko hil zi(r)en. Etortzen zi(r)en ta egunez jota apurtzen eben abioiekin ta hartu...Gero gabien atzera baioneta(...) ta... a quitarles eta holantxeik eta... Ta Peña Lemonan barriz Amuategixa ta beste aldetik, hemendik, frankistak ibili zi(r)en tercio San Ignacio y azpeittiarak, Azpeittia, Azkoitia y tercio San Ignacio, o sea que danak euskaldunak elkarren kontra hor...

6. Boxeoa Eibarren

- **Erref:** AB-170/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Boxeoa

Laburpena:

Soldautzatik etorri eta boxeatzeko ikasi zuen. Eibarren lehenengo, Donostian geroago (La Perla, Gros).

7. Boxeoa Eibarren: borrokak Astelenan

- **Erref:** AB-170/016
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Astelenan egiten ziren boxeoko konbateak; San Juanetan zezen-plazan.

8. Boxeorako zaletasuna handia

- **Erref:** AB-170/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Boxeoa

Laburpena:

Gipuzkoako Boxeo Federazioak antolatzen zituen konbateak. Boxealarien izenak. Gerra aurrean eta gerra ostean zaletasun handia.

9. Boxeo Eibarren: borrokak Astelena frontoian; Juanito "Txoko" antolatzaile

- **Erref:** AB-170/019
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Borrokak Astelena frontoian izaten ziren eta San Juanetan zezen-plazan. Juanito "Txoko" izaten zen antolatzaileetako bat.

10. Boxeo Eibarren: entrenamenduak Batzokian

- **Erref:** AB-170/021
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Batzokian entrenatzen ziren, frontoian. Korrika, soka-saltuan egiten zuten, baina inongo diziplinarik gabe.</p>

11. Pilotarako zaletasun handia Eibarren

- **Erref:** AB-170/027
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola

Laburpena:

Pilotarako zaletasun handia. Club Deportiboko txapelketetan parte hartutakoa (Astelena frontoian izaten ziren partiduak). Desafio handiak umeen artean ere. Astelena frontoia goizean goizetik beteta egoten zen. Frontoi zaharrean edo udaletxeko arkupeetan ere egiten zen pilotan.

12. Bizikletarako eta pilotarako zaletasuna Eibarren

- **Erref:** AB-170/028
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:42:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Bizikletarako zaletasun handia. Gojenola; Mahoma...txirrindulari ezagunak. Madrid-Eibar karrerak indar handia izan zuen urte batzuetan. BH eta Orbea bizikleta-lantegiak. Baina txirrindularitzarako baino, pilotarako zaletasun

handiagoa egon da. Astelena frontoian partidak domeka gauean eta ostegun gauean izaten ziren. Pilotari onak aste barruko partidetan ere.

13. Gerra aurreko pilotari ezagunak

- **Erref:** AB-170/029
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:42:10. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Gerra aurreko pilotari ezagunak: Atano III; "Mondragonés"; Romano Etxaburu "Txapasta"; Urzelai; Altuna; e.a. Eskua garbi, babes gabe jokatzzen zen orduan.

14. Miguel Gallastegi pilotaria

- **Erref:** AB-170/036
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:55:05. **Bukatu:** 00:55:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Miguel Gallastegi, ondo prestatutako pilotaria.

15. Eibarko frontoiak

- **Erref:** AB-170/041
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:58:50. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Eibarko frontoi zaharrean palaz eta zestaz egiten zen; Astelenan eskuz eta lantzean behin paletaz.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-07-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com